

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Elbira Berriotxo Muñoa

*Arrasate,
Gipuzkoa
(1925)*

Aurkibidea



Biografia



Zarugaldeko Arrixanena kale-baserrian (gaur galduta) jaio zen. Aita Elorrioko Gaztañeta baserritik etorri eta amaren Uribarri auzoko Arrixan (Arriaran) baserrira ezkondu zen. Bertan hiru seme-alaba izan zituzten. Gero aitagiz Zarugalden bizitzeko etxea eta ganaduentzako ukuiluak eraiki zituen. Bertan bizi zirela jaio ziren Elbira eta beste anai-arreba bi.

Ganadutik aparte, ehun oilo zaintzera iritsi ziren Zarugalden. Elbirak mesedetako mojekin ikasi zuen bost urtetik hamabostera arte. Gero Durangoko moja klaratarrek kudeatzen zuten San Antonio ikastetxean merkataritza ikasketak egin zituen hiru urtez. Beste bi urtez Bilbon ikasi ondoren, merkataritza-peritu titulua lortu zuen. Gerra denboran mortero bat sartu zitzaion etxera, baina teilatua eta ganbara zulatu ondoren, ohe baten gainean geratu eta ez zen lehertu. Arrasateko Joxe Zuluetaekin ezkondu zen eta seme-alaba bi izan zituzten.

Zintak

ARR-176

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-09-07
- **Iraupena:** 76 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Oruesagasti, Ainitze

Pasarteak

1. Zarugaldeko "Arrixan" kale-baserria

- **Erref:** ARR-176/002
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:03:02. **Bukatu:** 00:05:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Zarugalden, "Arrixan" (jatorrizko Arriaran baserria Uribarrin zegoen) kale-baserrian bizi zen familia. Bidearen beste aldean, kortak zeuden eta bertan edukitzen zuten ganadua. Behiak, idiak, astoak, ahuntzak, behorrak... zituzten. Baserriak ematen zuenetik bizi ziren. Auzoan, aroztegia zuen aita, baina etxerako bakarrik aritzen zen; negurako egurra bertan moztzen zuen. Elbiraren aita mutikotatik etxegilea zen osaba batekin ibili izan zen, eta harekin ofizioak ikasi zituen.</p>

2. Mesedetako mojetan ikasia

- **Erref:** ARR-176/005
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:06:06. **Bukatu:** 00:07:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Lau-bost urte zituela hasi zen "merzedarietako" eskolan, eta 15 urtera arte ibili zen bertan. Valladolideko moja batekin ikasi zuen gaztelaniaz hitz egiten. Asko kostatu zitzaion gaztelaniaz hitz egiten ikastea; euskaldunak gutxietsi egiten zituzten. Zigortu egiten zituzten.

3. Dotrina eta jaunartzea

- **Erref:** ARR-176/008
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:10:20. **Bukatu:** 00:11:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:

Elbirak jaunartzea euskaraz egin zuen, zazpi urte zituela. Abade-etxera joaten ziren dotrina ikastera. San Joan Batailatzailearen parroki-elizan egin zuen jaunartzea.

4. Abade-etxea eta apaiz abertzaleak

- **Erref:** ARR-176/009
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:11:09. **Bukatu:** 00:11:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Errepublikara garaietan, Arrasateko abade-etxean ikastola zegoen. Arrasaten, hiru abade abertzale hil zituzten. Gero fusilatua izan zen abadeetako batek, On Jose Joakin Arinek, prestatu zuen Elbira jaunartzerako.

5. Eskola garaiko jolasak

- **Erref:** ARR-176/012
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:13:18. **Bukatu:** 00:15:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Eskola garaiko jolasak aipatzen ditu: sokasaltoak, "diez-veinteka", "kalistroan" (klaustroan lasterketak egiten), txorro-morroka... ibiltzen ziren. Kromoekin eta tortolosekin ere jolastu ohi zuten. Eskolako neskaren batek ere ba omen zuen diaboloa.

6. Nazionalak, baserriak eta esne-bezeroak

- **Erref:** ARR-176/013
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:15:57. **Bukatu:** 00:17:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

1936ko irailaren 26an sartu ziren Nazionalak Arrasaten. Kaleko arriskutik alde egiteko, Elbiraren aita ganaduarekin "Arrixan" baserrira igotzen zen goizetan; seme-alabak ere berarekin egoten ziren. Iluntzean, kale-baserrira jaisten ziren, eta amak behiak jezten zituen. Esne-bezeroak beraien etxera joaten ziren esne bila.

7. Nazionalak Krutzetxikin behera

- **Erref:** ARR-176/014
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:17:42. **Bukatu:** 00:18:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Nazionalak Arrasaten sartu zirenean, Elbira "Arrixan" baserrian zegoen aita eta anai-arreba txikiarekin; iluntzean, kalera jaisten ziren. Ama eta ahizpa zaharrenak, berriz, kale-baserria zaintzen geratu ziren. Krutzetxiki mendian behera joaten ikusi zituzten nazionalen tropak. Jendeak beldur handia zuen.

8. Baserritik bizi

- **Erref:** ARR-176/015
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:18:26. **Bukatu:** 00:19:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Bost behi, idi pareak, astoa... zeuzkaten. Eguna hasterako, kaletik "Arrixan" baserrira joaten ziren ganaduarekin; iluntzean jaisten ziren kale-baserrira. Ganaduak ondo ezagutzen zuen baserrirako bidea. Urtean, bi txerri hiltzen zituzten: bata, udazkenean; bestea, Gabon ostean. Bederatzi lagun bildu ohi ziren etxean. Baserriak ematen zuenetik bizi ziren; "amak erosi behar ziren gauzak asko zaintzen zituen".

9. Nazionalak sei hilabete Arrasaten

- **Erref:** ARR-176/017
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:20:01. **Bukatu:** 00:21:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

<p>Nazionalek sei hilabete egin zituzten Arrasaten; udazkenean iritsi eta udaberrira arte. Denbora horretan, soldaduek behar zuten guztiak ematera derrigortuta zeuden herritarrek.</p>

Transkripzioa

- Eta bueno, egun argiz Kurtzetxikittik behera ikusi zittuein etorten eta...
- Hogeta xeian.
- Bastante denpora egon zien, ezta?
- Xei hilebete. Udazkenien etorri ta udaberrira arte. Hasi zan ordun abanzie, ez dakitzu? Hor Intxorta aldetik eta juan zien. Ta ordun hamendik juan zien. Baiña horrek xei hilebetiok eurei falta itten otsen dana, emun ez, eskatu itten zauen ta obligau itten zauen laguntasuna biher bazauen laguntzeko.
- Ta ordaindu itten auen?
- Ordaindu? Pistolan bat ez baotsun erakusten, pozik! Ordaindu? Zelan ordainduko zuten ba? Ez, ez, ez. Baiña ixi-ixilik gaiñera, e?
- Eta abusorik edo ein auen zuenien? Zerbait ostu edo baten bat jo edo...
- Ez, ez, ez, ez. Nahiko errespetokin egon ziren, bai. Ez, ez. Ez zan hola, ez naz gogoratzen. Ni gaztie nintzen baiña ez nutsen entzun be ein beste batzuri zoeze pasetan jakunik, e? Ez, ez. Eurakin be itxuria etxekuek ondo errespetuakin eta eurak be bai. Bai.

10. Soldaduak etxabeen

- **Erref:** ARR-176/018
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:21:06. **Bukatu:** 00:21:51

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

<p>Soldaduak herrian egon ziren denboran, etxe azpiko lokala utzi behar izan zien; bertan, ospitale bat prestatu zuten, eta mediku eta erizainak egoten ziren. Elbiraren familiak janaria gordetzeko erabiltzen zuen etxabea.</p>

Transkripzioa

- Ta zuek euki zebein militarrik etxien lo eitten ta hola?
- Ez, ez, ez. Pentzau bez!
- [...] egon zien...
- Bai, bai. Ez, ez, gurien ez. Horreik bajuok, ba, lehenau ba, gure etxien, ba, janarixakin ta egoten zien, ezta? Ha dana kendu eta eurek eukitten zittuen han gauza guztiak. Eurendako hartuta modun aukien ta ixil-ixilik.
- Ta esan dozu ospittala jarritta eukiela [...]
- Bai, bai. Holan egoten zienien baten batek min hartuta edo guregana, ba, hona etortzen zien. Medikua ta enfermeruak eta azen hemen behien, e? Bai. Baiña errespetua...

11. Morteroa hirugarren solairuan

- **Erref:** ARR-176/019
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:21:51. **Bukatu:** 00:22:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Elbira bizi zen etxearen hirugarren solairura mortero bat bota zuten. Ohe gainera erori zen, eta kalte txikiak eragin zituen. Mortero eta kanoikaden arteko aldea zein den azaltzen du.

12. Gerra garaiko gordelekua, errekan

- **Erref:** ARR-176/020
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:22:57. **Bukatu:** 00:23:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Bonbardaketak hasten zirenean, etxekoek errekan hartzen zuten babes. Aitak etxea egin zuenean prestatutako toki bat zen.

13. San Andres eguneko erasoa

- **Erref:** ARR-176/021
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:23:49. **Bukatu:** 00:26:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Gerra zibileko kontuak. San Andres egunean, "gorrien abanzada" bat egon zen Udala aldetik. Behe-laino handia zegoen, eta kale aldean mugimendu handia ikusten zen. Militarrek Santa Barbara aldean kanoi bat jarri zuten Udala aldera ("gorrien" trintxeretara) begira, eta herritarrei agindua eman zien lehiak guztiz ez ixteko (kalte handiagoak ez eragiteko). Goizaldean, behe-lainoa aprobeztatuz, "gorriek" militar ugari hil zituzten ezustean. Amak ez zien usten gerrako kontuez hitz egiten.

14. Gerra denboran, eskolarik ez

- **Erref:** ARR-176/025
- **Iraupena:** 0:00:36. **Hasi:** 00:29:26. **Bukatu:** 00:30:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Gerra denboran, gurasoek ez zien usten kalera ateratzen. Ez ziren eskolara joaten.

15. Dendak eta errazionamendua

- **Erref:** ARR-176/026
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:30:02. **Bukatu:** 00:30:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Gerra denboran, herriko denda batzuk itxi egin zituzten. Errazionamendua jarri zutenean, dendetan ilara luzeak, orduetakoak, egoten ziren janaria eskuratu ahal izateko. Azkarate okindegia etxe ondoan zegoen.</p>

16. Baserriko lanak: artoa, belarra, oiloak...

- **Erref:** ARR-176/027
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:30:58. **Bukatu:** 00:32:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Ez du etxean garia egiten ezagutu, baina artoa bai. Elbiraren ama 100 oilo edukitakoa da, eta haiei artoa ematen zien jaten. Artoaz gain, erremolatxa,

arbia eta alpapa egiten zuten soroetan. Larunbatetan, segalariak joaten ziren aitari belarra mozten laguntzera. Belarra "Arrixan" baserriko ganbaran jasotzen zuten; gero, aldian-aldian, gurdiaekin jaitsi ohi zuten kale-baserrira.

17. "Arrixan"-go errenteroak

- **Erref:** ARR-176/028
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:32:36. **Bukatu:** 00:33:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Elbiraren familia "Arrixan" baserritik kale-baserrira jaitsi zenean, "Arrixanen" errenteroak geratu ziren. Errenteroei buruz hitz egiten du: gizonak Zerrajeran egiten zuen lana, eta hiru ume zituzten. Baserri inguruko lurak Elbiraren familiak lantzen zituen.

18. Udalako gurdibidea

- **Erref:** ARR-176/030
- **Iraupena:** 0:10:25. **Hasi:** 00:24:28. **Bukatu:** 00:34:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

Laburpena:

Lehen, Udalak bidea gurdibidea zen. Arrasatera lanera jaisten zen Udalako jendea bide horretatik ibiltzen zen. Asto eta gurdiekin ibili ohi ziren.

19. Ortuko eta basoko lanak

- **Erref:** ARR-176/032
- **Iraupena:** 0:00:43. **Hasi:** 00:34:57. **Bukatu:** 00:35:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

Zarugaldeko kale-baserriaren atzean ortuak zituzten. Elbiraren ama ortuko lanean aritzen zen, eta aita, berriz, baserriko lanetan ibiltzen zen, baso-garbiketan, goldan...

20. Zarugaldeko garbitokia

- **Erref:** ARR-176/034
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:36:36. **Bukatu:** 00:37:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Zarugaldeko kale-baserrian ura eta argia zuten. Arropak garbitzera erreka ondoko garbitokira joaten ziren. Herriko garbitokiak: Zarugalden, Gaztelondon eta Maalan zeuden. Kaleko jendea Zarugaldeko garbitokira joaten zen arropak garbitzera menditik ur garbia etortzen zelako.

21. Zigortutakoan, amari esan ez

- **Erref:** ARR-176/037
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:39:22. **Bukatu:** 00:40:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak

Laburpena:

Eskola garaian, Elbira askotan zigortzen zuten. Ama bila joaten zenean, ez zion esaten zigortu egin zutenik, eta beste gezurren bat esaten zion.

22. Eskolako oroitzapenak

- **Erref:** ARR-176/039
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:42:01. **Bukatu:** 00:43:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

Eskola garaiko oroitzapen onak ditu. Lagun onak egin zituen. Ikasgelan, 40 neska inguru ziren, eta moja "pixka bat gogorra" omen zen. Historia sakratua ikasten zuten. Eskolan, moja erdalduna jarri zien erdaraz irakasteko. Elbirak ez zekien gaztelaniaz hitz egiten; lezioa galdetutakoan euskaraz esanez gero, irakasleak iraindu egiten zituen.

23. Amak erdararik ez; aitak, bai

- **Erref:** ARR-176/040
- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 00:43:12. **Bukatu:** 00:43:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Elbiraren amak ez zekien gaztelaniaz hitz egiten. Behinola, amak militar bati euskaraz egin zionekoa kontatzen du. Aitak, berriz, bazekien gaztelaniaz. Aita osaba etxegile batekin lanean ibili zen kanpoan, eta horrela ikasi omen zuen.

24. Aita, osabarekin Toledo lanean ibilia

- **Erref:** ARR-176/041
- **Iraupena:** 0:00:37. **Hasi:** 00:43:50. **Bukatu:** 00:44:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Beste batzuk
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Elbiraren aita osaba etxegile batekin lanean aritu zen gaztetan. Toledoko katedraleko kanpandorrean kanpaiak jartzen ibili omen ziren.

25. Elorrioko eta Apotzako jaiak

- **Erref:** ARR-176/043
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:45:47. **Bukatu:** 00:46:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Elbiraren aita Elorriokoa zen, eta iraileko lehenengo igandean hango jaietara joan ziren aitarekin; ama baserrian geratzen zen ganadua zaintzen. Amaren familia, berriz, Apotzakoa zen, eta hango jaietara ere joaten ziren. Orduan, aita gelditzen zen ganaduaren kargu.

26. Erromeriak

- **Erref:** ARR-176/046
- **Iraupena:** 0:00:36. **Hasi:** 00:48:28. **Bukatu:** 00:49:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

Uribarri, Musakola, Aretxabaleta... inguruko erromerietara joaten ziren. Pazkoetan, Bergara joaten ziren trenez. Tren bereziak jartzen omen zituzten Bergarako jaietara joateko.

27. Zinera joateagatik zigortu

- **Erref:** ARR-176/047
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:49:04. **Bukatu:** 00:51:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Gaztetako kontuak. Ez zuten arazorik izaten baltseoak egiteagatik. Igandetan, zinera joaten ziren. Norbaitek abisua pasatzen zien mojei, eta, gero, mojek zigortu egiten zituzten zinera joaten zirelako.

28. Arrasateko auzoak, kaleak...

- **Erref:** ARR-176/050
- **Iraupena:** 0:00:37. **Hasi:** 00:54:31. **Bukatu:** 00:55:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

Laburpena:

Zarugalde kaletik Musakola eta Maala urruti egiten zitzaizkien. Miatzerreka auzoa non hasten den azaltzen du.

29. Hiletak

- **Erref:** ARR-176/053
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:56:48. **Bukatu:** 00:57:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

Miatzerrekako norbait hiltzen zenean, etxekoek jaitsi behar izaten zuten gorpua Zarugalderaino. Han, Elbiraren etxe aurrean, mahai bat jartzen zuten hildakoaren gorpua bertan jartzeko. Abadea Zarugaldera joaten zen, eta handik hasten zen elizarako prozesioa.

30. San Joan parrokia

- **Erref:** ARR-176/055
- **Iraupena:** 0:00:31. **Hasi:** 00:58:00. **Bukatu:** 00:58:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

Laburpena:

San Frantziskoko elizan abadeak ematen zuen meza; gero, joan ziren frantziskotarrak hara. Elizako ospakizun nagusiak, San Joan parrokian egin ohi ziren.

31. Durangoko San Antonio barnetegia

- **Erref:** ARR-176/060
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 01:00:59. **Bukatu:** 01:02:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

15 urterekin, mesedetako eskolan ikasketak bukatuta, Durangoko San Antonio barnetegira bidali zuten. Moja klaratarrena zen eskola. Gabon garaian eta udaran bakarrik ateratzen ziren handik. Gose denboran egon zen han.

32. Gose garaia

- **Erref:** ARR-176/061
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 01:02:49. **Bukatu:** 01:04:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Artoa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Gose denboran, Elbiraren etxeok ez zuten goserik pasa; berak Durangoko barnetegian bai. Amak taloak eta morokilak egiten zituen. Elbirak gustuko zuen amaren morokila, azukrearekin. Gari-irinarekin egindako ahia prestatu ohi zuen amak.</p>

33. Barnetegian, goseak

- **Erref:** ARR-176/062
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 01:04:07. **Bukatu:** 01:05:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerra ostean, Durangoko San Antonio barnetegian egon zen, eta han gosea pasa zuen. 80 neska eta 20 moja zeuden barnetegian. Hamabostean behin, etxeok bisitan joaten zitzaizkion, eta jatekoa eraman ohi zien.

34. Arrautzak entregatu behar

- **Erref:** ARR-176/064
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 01:05:35. **Bukatu:** 01:06:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Gerra ostean, astean dozena bat arrautza entregatu behar izaten zuten alondegian.</p>

35. Merkataritza-peritu ikasketak

- **Erref:** ARR-176/065
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 01:06:38. **Bukatu:** 01:08:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Hiru urte egin zituen Durangoko San Antonio barnetegian. Bilbon egiten zituzten eskolako azterketan. Gero, beste bi urte egon zen Bilbon ikasten. Denbora horretan, ahizpa zaharrenaren etxean egon zen. Merkataritza-peritu titulua atera zuen.

36. Barnetegiko errutina

- **Erref:** ARR-176/069
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 01:12:02. **Bukatu:** 01:15:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak

Laburpena:

Durangoko San Antonio barnetegia egon zeneko garaia buruz hitz egiten du. Barnetegiko errutina nolakoa izaten zen azaltzen du. Frantsesa, matematika, gramatika, historia... ikasten zuten. Mojek asko kontrolatzen zituzten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-07-28

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com